

BALIO PROPOSAMENA

Gure enpresa izena MachineCurine da, izen hori dauka gure produktua “machine” makina bat delako, eta jendea laguntzeko eta sendatzeko “curine” jarri diogu. Ingeleseztan jarri dugu uste dugulako horrela jende guztiak ulertu dezakeelako.

Umeak esploratzaileak dira, abenturazaleak eta oso kuriosoak, beti mugitzen dira, jolasten, saltoka edo mundua bere kabuz deskubritzen aritzen dira. Hala ere, abentura hauek burutzean, erorketa edo kolpe bat jasotzeko arriskua dago eta honen haurrean gurasoak ikaragarri kezkatzen dira. Bere buruari honelako galderak egiten dizkiote: zerbaite larria gertatu zaio nire haurrari? edo kolpetxo bat bakarrik izango da?

Hori dela eta, produktu hau sortu dugu, bat-bateko diagnostikoa egiten duen haurrentzako eskanerra. Makina oso arina da eta haurren arretan ezinbesteko tresna bihurtzeko diseinaturik dago, segundo gutxi batzuetan lasaitasuna eta erabaki informatuak emateko gai dena koloreen bitartez.

Gure produktua funtzionatzen du haur batek erorketa eta kolpe bat izaten duenean, haurrari eskanerra pasatuko diogu mina hartu duen gorputz atalean. Analisisirako teknologia aurreratuaz hornituta dagoenez, produktuak anomaliak detektatzen ditu eta kolpearen larritasun-maila koloreen bitartez adierazten duen seinale bisual bat igortzen du.

Berdea dena lesioa azalekoa denean, ez dago kalte nabarmenik eta ez da premiazko laguntza medikurik behar.

Horia esan nahi du kontuz ibiltzea gomendatzen da, hau da, eremuaren zaintza edo kontrol mediko prebentiboa bilatzea eskatzen du. Horia ateratzen bada ez da beharrezkoa medikuarengana joatea.

Gorria esan nahi du lesio larria izan daitekeela adierazten du eta medikuaren laguntza beharrezkoa da eta ospitalera joan behar da.

Berrikuntza denon eskura dago!

Produktua ez da gailu bat besterik, aurrerapen teknologikoak eta erabilera intuitiboa eta erraza konbinatzen dituen soluzioa da. Bere tamaina txikiak aukera ematen du edozein egoeratan erabiltzeko: etxetik hasi eta eskola edo aire librean ere.

Gainera, pisu arina eta funtzionamendu erraza du, horrela edozein pertsonak, esperientzia medikorik izan gabe, konfiantza osoz erabili ahal izango du.

Produktuaren onurak hainbat dira, haien artean segurtasuna bermatzen duen tresna da, estresa eta ziurgabetasuna murrizten ditu, ebaluazio argi bat ematen duen bitartean.

Erabaki azkar eta seguruak ematen ditu, lesio batek premiazko arreta behar duen ala ez erabakitzen laguntzen du.

Prebentzioa eta zaintza segurtasunaren eta arreta egokiaren kultura sustatzen du, batez ere haur aktiboen inguruneetan.

Erantzun bisuala dauka, istripuaren larritasunaren arabera kolore bat edo beste bat agertuko da.

Gailu arina eta txikia da, eta erabiltzen denean, azkar erantzuten du.

Prezioa 300€ da.

Produktu honekin familien eta haurrak zaintzen dituztenen ahalmena handitu nahi dugu, zehaztasun mediku eta sinpletasunaren konbinazioa duen tresna bat eskaintzen. Baina ulertzen dugu, minutu bakoitza garrantzitsua dela gure maiteak babestean.

Produktuarekin, erorketak eta golpeak ez dira gehiago ziurgabetasunaren arrazoia izango. Orain, lasaitasuna izango duzu, noiz eta nola jokatu jakiteko, eta ziurtatzeko haurren abenturariotasuna eta konfiantza jarraitzen dutela mundua esploratzen.

Prest al zaude haurrei merezi duten babesarekin hornitzeko? Produktu honekin zaintza beti eskura izango duzu.

Gure proiektua ezberdintzen duena, gure zerbitzua berritzailea izatea izango da, hau da, kualitatiboa da, izan ere zerbitzu berriak eskaintzen dituen produktua izango da.

